

ARozTEGIA GELDITU! UGEPIK EZ, INPOSIZIORIK EZ!

Hau jendeketa, hau! Biba zuek!

Euskal Herri osoko txokoetatik etorri den jendea ikusten dugu hemen, eta honek baieztatzen du guk erraten duguna: borroka hau ez dela bakarrik Lekarozkoa, Baztangoa, Euskal Herri osoko borroka baizik.

Lozorroan ginela uste zuten, baina ez ginen lo!

Eta loratu gara, landareak bezala. Hazitik hozie diote gure zaharrek eta halaxe da. Belaunaldiz belaunaldi ereindako hazi haiei esker loratu da gaurko manifestazioa. Mugimendu guzi honen fruitua izan dadila Aroztegia gelditzea! Aroztegiko proiektuaren kontrako mugimendua, herrien etorkizunaren aldeko borroka dugu.

Argi ikusten dugu herri bat, hizkuntza bat, komunitate bat erasotzen dutelarik, herri osoa erasotzen dutela. Berdin du Amazonian, Kanadan, Kolonbian, Palestinan, Donibane Lohitzunen edo Lekarozen. Hamaika erasoren aitzinean hamaika koloretako erantzunak!

Hemen bildurik gaudenek aski ongi ezagutzen ditugu halakoak: Aroztegia, AHT, haize errotak, erraustegia, Itoitz, turistikazio basatia, pelotazoak non nahi!

Argi ikusten dugu ere eraso hauek mozorro diferentea dutela, baina mozorroaren barnekoa beti iguala dela: bizitza sostengatzeko oinarrizko bizimoduak desagerraraztea du helburu. Lekarozen pelotazo urbanistiko batekin lortu nahi dute helburu hori. Baztango 16. herria eraiki nahi dute, herritarren hitza eta erabakitze ahalmena mesprextatuz. Inposatuz. Eta ez da nolanhiko proiektua: luxuzko hotel bat, golf belagia eta 228 etxebizitza. Herriko ondasun historiko desberdinak, lur komunalak eta herritar xumeen lurra bereganatzeko erabilitako trikimailuak legezkoak izanen dira, baina ez legitiemoak!

Sinestarazi nahi digute etheen beharra dugula, non eta Baztanen, 860 etxebizitza huts eta 520 bigarren etxebizitza daudelarik.

Sinestarazi nahi digute lana ekarriko dutela, lanpostuak sortuko dituztela, mendez mende jasangarria izan den eta jatera eman digun lurra zementuz bete nahi duten bitartean.

Sinestarazi nahi digute turismorako beharrezkoa dela, gaur egun turismoaren saturazioa kudeatzeko arazoak ditugularik. Ikusi bertzerik ez dago Xorroxinekin gertatu dena.

Sinestarazi nahi digute horrelako proiektuen kontra ez dagoela deus egiterik, borrokak ez duela merezi. Ongi dakigu hori gezurra dela. Baztandik hasita, irabazitako borroka andana baditugu hondar aldi honetan: Munoako harrobia, Pikotako harrobia, Erdizeko meategia, Kisuako urbanizazioa. Atzendu gabe Euskal Herria dela Europa mailan eremu ez nuklear bakarrenetakoa, Lemoizko borrokari esker.

Eta hemen gaude berriz ere, gure lurra, gure hizkuntza, gure kultura eta gure bizimodua defenditzeko prest. Ez atzendu aberatsak lau direla eta gu herri oso bat, bere etorkizuna zaintzaz eta errespetuz josi nahi duen herria.

Herritarren interesak defenditzen ez dituen bitartean Nafarroako Gobernuak herria izanen du aurrez aurre. UGEPa gelditzea erabaki politiko bat da. Baztanen, Nafarroan, Euskal Herrian eta munduan agortua den eredu baten babesle bilakatzen dira isiltzen direnak! Erabaki politiko makurren zuzentzeko ahalke eta beldurrei izkin egin, eta ausardiaz jokatzeko exigitzen diogu Gobernuari.

Aski da! Lurra, kultura eta bizitzaren defentsan; Aroztegia gelditu!